# Eskuak txalo

**Mozorroak egin ihauterikari.**



## Ahoskera

a) Xistukari frikariak eta afrikatuak : /ś/, /š/, /s/ → /ć/, /č/, /c/
*Zarta, ditzagun, xafla*

b) Dardarkariak : /r̄/, /r/
Tira, karra, torra...
Hitz hauen bereizketa egin : tiri/tirri, mara/marra, hori/horri, ura/urra...

Esaldi hau erranaraz : « *Esku batekin urra ezazu orri hori eta uraren gainean emazu.* »

## Aurpegiari dagokion hiztegia

*kopeta, matela, sudurra, ahoa, ezpaina, kokotsa, beharria, begia, bekaina...*

**Zein da falta ?**
Izendatzen ez den aurpegi atala, zein da ? Falta dena atzeman.

**Buruaren atalez baliatuz,** loto jokoa egin.

**« Jakesek erran du »** jokoa egin.

nor-nork indikatiboan / aginteran.
-KO atzizkia.
Ezezko formak.
– *Sudurra erran duzu.*
– *Begia ez duzu erran.*
-KO (aginterazko perpaus osagarria)
– *Jakesek erran du sudurraren hunkitzeko.*

## Mozorroak egin

## Motrizitatea

Ezker/eskuin : lateralizazioa lantzen ahal da, begien, belarrien, matelen inguruan.

Agintera
– *Har ezazu eskuineko belarria...*

## Simetriaren lantzeko jokoa

Orri batekin, aurpegi baten itxuraren lortzeko haurrei orriaren tolestea eta moztea galdetzen zaie. Begiak, ezpainak, sudur ziloak eta belarrien inguruak simetrian agertzen dira orri hori berriz zabaltzean.

## Marrazki lana

Ikasleak bururatu behar du irakasleak hasi duen marrazkia :

nor-nork indikatiboan.
Aditzaren aspektua.
– *Sudurra marraztu dut.*
– *Begia marraztuko dut.*

